

Musika

«Serioski egiten dugu yeyea»

Bi alderdi ditu The Sparteensek. Fikziozkoa bata, benetakoa bestea. Fikziozkoan, 1960ko hamarkadan beraien yeye estiloari esker famatu egindako super-izarrak dira; orain, urteetako isilunearen ondoren, bueltatzea erabaki dute, *Jo ta Ke*, *Zu atrapatu arte* eta *Txus bezalako kanta* ezagunekin. Marradun orrazkerak, bizar izpirik gabeko aurpegiak, loredun soinekoak, euroak, irribarreak... Errealitatean berriz, Urruñako entsegu lokala konpontzen ari direla-eta, Hendaiara joan, eta hurrengo kontzertuaren aurretik azken entsegua egiteko tokirik lortu ezinik dabilen yeye taldea da The Sparteens.

INIGO ASTIZ

Argazkiak: Nora Arbelbide

BAKEROAK, bizar egin gabeak eta haserrea lokaleko arduradunek eskatu baino ordu gutxiago eman dizkietelako. Hala egin dugu hizketaldia Iban Rusiñol gitarra jolearekin, pertsonarekin, entseatzeko lekua lortu zain dagoela, une batez Douglas Nightingale, pertsonaia, albo batera utzirik.

Kontatu duzue, txantxa gisa sortu zen The Sparteens taldea. Maribel de Iriarte (abeslaria) eta zu telebistan yeye musikari buruzko erreportaje bat ikusten ari zinetela, otu omen zitzaizuen rock musikaren kanta ezagunak estilo hartara itzultzea. Txantxa oso serio hartu duzue, baina.

Nire lagun Paul Lux-i [baxu jotzailea] esatera lapurtuz, "txantxa oso serioa da". Proiektu osoa deskribatzen du esaldi horrek. Txantxa bat erdibidean utziz gero, ez da barregarri suertatzen. Bukaeraraino joan behar dela pentsatzen dut, nahiz eta ez dakidan gero lortzen dugun edo ez. Yeye estiloa guztiz asumitu, eta ahalik eta hobere egiten saiatzen gara.

Kanta ezagunen yeye bertsioak egiten dituzue, nahiz eta fikzioan, noski, rock talde horiek diren The Sparteensen 60ko hamarkadako yeye kanten rock bertsioak egin dituztenak. Parodia da burura datorkidan hitza.





Saiatzen gara parodia ahalik eta gehien baztertu, eta benetan yeyea egiten. Benetako yeyea egiten. Soinu horrekiko eta harmonizazio horiekiko ahalik eta fidelen jokatzeari da asmoa. Ez da parodia. Parodia da abesti orijinalarekiko, noski, baina nik estilo hori seriooki egiten dut.

Rock mundutik zatoz zu, ordea. Yeye estiloa albo xamarretik pasatuko zitzaizula pentsatzen dut.

Espainiako telebistan ez zegoen besterik. Garai bateko film guzti-guztietan ageri ziren orduko yeye izarrak. Rocío Durcalenak edo Marisolena ziren denak. Orain ere, ziur aski, film haietako baten irudi bakar bat ikusita, istorio guztia etorriko litzaidake gogora.

Badu nostalgia puntu bat, beraz, taldeak?

Nostalgia ez. Atzean, zintzilik gelditu zaidan zerbait da. Film haietan entzuten nuen musika asko gustatzen zitzaidan, eta asko gustatu izan zait gerora ere. Kostatu egin zait hori ulertu, onartu eta armairutik ateratzea, baina betidanik egin nahi izan dut halako musika, nahiz eta heavy metaletik hasi naizen.

Horregatik. Kanta hauek prestatzeko, lehenago ikerketa franko egin beharko zenuen.

Konponketak nola egin asmatzeko bai, baina kantu batzuk gogoan nituen aspal-ditik. Los Bravos, Los Brincos, Rocío Durcal... Gero ikerketa erraza izan zen,

Yeye musika egin arren, The Sparteens taldeko kideek ez dute uste nostalgikoak direnik. "Zintzilik" geratu zitzairen zerbait zen estilo hau, "armairutik ateratzea" kosta zaie. Baina atera dira... eta nola!

nik Espainia aldeko taldeak gogoan nituelako, eta Maribelek, berriz, Frantzia aldekoen berri eman zidalako. Hala sortu zen taldea, ni alde bateko taldeez ari nintzaizolako, eta bera, berriz, beste aldekoetz. Ezagutzen ez nituen talde mordoa ezagutu nuen.

Eta badago bien arteko zubirik?

Frantzian yeyea lehenago hasi zen, eta soinu sinpleagoa zuen hasieran. Freskoagoa zen. Espainiara beranduago heldu zen estilo hau, eta instrumentazioak eta gainontzeko konponketak aberatsagoak bihurtu ziren. Nik nahiago dut

Espainiakoa, egiten ziren konponketak asko gustatzen zaizkit. Baita Italiako yeyea ere. Rita Pavone, esaterako. Oso yeye partikularra da italiarra. Tonino Carotone entzutean hasi nintzen talde horiek ezagutzen.

Nahiko partikularra da zuena ere. Su ta Gar, La Polla, Sex Pistols, Nirvana eta halakoak yeye estiloan entzutea...

Idea honekin aurrera segitzeko baldintza hori zen; yeyea egitea, baina gure garaiko abesti bortitzen bertsioak eginez. Asmoa zen testua eta musika ahalik eta aldenduen egotea. Horren arabera egiten dugu kanten aukeraketa, nahiz eta bertsionatu dugun Delirium Tremensen *Ikusi eta Ikasi* ez hain bortitza izan. Eskorbutoaren baten bat egitea darabilkigu orain buruan. *Los cojones me cortaría* [barrabilak moztuko nituzke] eta hori guztia. Punk erreperitorio osoa, egia esan, oso yeyea da, eta ez da kasualitatea La Pollak *Tengo una chica muy yeye* izeneko kanta edukitzea. Akorde berak errespetatuta, soinu aldaturaz, oso erraza da punk kanta bat yeye bihurtzea.

Txus abestiaren bertsioa egin duzue. Garai batean Cojon Prieto y Los Guajalotes taldekoek rantxera bihurtu zuten kanta hori bera. Guajaloteak izan daitezke zuen erreferentzietako bat, agian?

Niretzat erreferente argia dira, bai, baina ez nuen haien bertsioa ezagutzen. Uste genuen lehenak ginela kanta horrekin



halako ezer egiten, eta eskerrak ez genuen Guajaloteen bertsioa entzun, bestela, agian, beste kanta bat aukeratuko genuelako. Guajaloteak beti izan dira lehenak halako ideiak edukitzen. Rantxerak kantatzea, Tonino Carotone kanta italiarrak abesten aritzea... Toninok diskoa atera zuenean, pentsatu nuen: "Ze on! Ze kastroia!". Batzuetan zerbait otu, eta Iruñea inguru horretatik eginda heltzen dira ideia horiek. Lehendakaris Muertos eta jende hori guztia ere han ingurukoa da.

Joan den udazkenetik hona hilero bertsio bat atera duzue orain arte, eta single modu-

ra kaleratu. Bakoitza bere kutxan, eta bakoitza bere opariarekin. Kaleratu baino lehenago, ordea, kantaren egileari bidali dizkiozue. Zer erantzun jaso duzue?

Sex Pistolsi eta Kurt Cobaini ez dizkiogu bidali, baina ingurukoei bai, eta orokorrean erantzun oso ona jaso dugu. Ez dugu arazorik izan, eta batzuei asko gustatu zaie bertsioa. Ea hurrengoek nola hartzen duten.

Publikoari begira esfortzu berezia egiten duzue beti parte-hartzea bilatzeko; Twist lehiaketak antolatzen dituzue kontzertuetan, singleen artean lau baba ezkutatu, eta baba aurkitzen dituzten entzuleek hurrengo kantantahotsak sartzen dituzte...

Twist lehiaketarena proba gisa egin genuen kontzertu batean, *gag* gisa, baina orain beti egiten dugu, eta kontzertuko nire unerik gogokoena da, jendea parte hartzera bultzatzen duelako. Funtzionatzen du, eta jendea animatu egiten da. Parte-hartzaileei dortsalak banatu, eta kopak banatzen dizkiegu gero irabazleei. Lehia gogorra izaten da batzuetan, Ipar

Euskal Herrian, oso ohikoa baita rocka dantzatzea, baita rock akrobatikoa dantzatzea ere. Nibel altua izaten da zenbaitetan.

Bada esaten duenik rockak jada ez duela koskarik egiten. Ez omen du molestutzen. Yeyearen garaia itzuli da agian?

Egia da rock indartsua edulkoratzaren hasia dela, aspaldi. Lehen ohituta ez ziren belarriek hobeto asimilatzen dute

musika hori orain. Yeye ere garai bateko rock eta twistaren bertsio edulkoratua da. Eta beraz, yeyearen garaia? Noski! Baina hitz bortitzekin! ■

"Egia da rock indartsua edulkoratzaren hasia dela, aspaldi. Lehen ohituta ez ziren belarriek hobeto asimilatzen dute musika hori orain. Beraz, yeyearen garaia? Noski! Baina hitz bortitzekin!"



Jaso euskal kultura egunero 10 albistetan

Harpidetza doan e-postaz

Dagoeneko 2.500 harpidedun

hari@

euskal kulturaren buletinak 10 urte

argia.com